

41. FITXA Biogas instalazioen proiektu berezietarako pizgarri-programaren lehen deialdia

Norentzat: Sektore publiko instituzionala, Administrazio Publikoei lotutako edo haien mendeko zuzenbide pribatuko erakundeak, unibertsitate publikoak eta horiei atxikitako zentroak. Jarduera ekonomikorik ez duten pertsona fisikoak eta juridikoak (**toki-erakundeak** barne).

Sarbide-esteka: [IDAE, Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutua](#)

Eremuak: Energia

Zenbatekoa: 75.000.000 €

Aurkezpen-amaiera data: 2022/09/12tik **2022/10/28ra 14:00etan**

Laburpena

Biogas instalazioekin lotutako proiektuek jaso ahalko dute laguntza, horrela energia berriztagarrietan oinarritutako dibertsifikazio energetikoa lortzeko eta, horren ondorioz, erregai fosilekiko mendekotasun energetiko txikiagoa izan eta CO₂ eta metano isuriak murrizteko.

Jatorri organikoko lehengaiaren (substratua) biodegradazioak sortutako gasa hartuko da biogastzat. Bereziki, digestio anaerobioaren (oxigenorik ez dagoenean) bidez sortutako biogasa sustatu nahi da aginduan eta deialdietan.

Biogasa lortzeko prozesuetan biomasaren digestio anaerobioaren ondorioz sortzen den materiala hartzen da digerituztat eta aberatsa da hainbat mantengugaietan, hala nola nitrogenoa, fosforoa edo potasioa.

Deialdi honen xede diren pizgarri-programetara aurkezten diren proiektuetarako **gehieneko laguntza 15 milioi eurokoa** izango da proiektu eta onuradun bakoitzeko, eta **100.000 euroko gutxieneko inbertsioa** egin beharko da proiektu bakoitzeko.

Eskabide bakarra egin beharko da laguntza jaso nahi duen instalazio bakoitzeko.

PROIEKTUEN EZAUGARRIAK

Jarduera-tipologiek honako baldintza hauek bete behar dituzte:

A. 1. TIPOLOGIA (T1): Biogasa ekoizteko instalazioak egitea

Diruz lagundu ahal izango da biogasa ekoizteko instalazioetan inbertitzea, honako lehengai hauek oinarri hartuta:

- a) Gaikako bilketatik eratorritako udal-eskumeneko hondakinen zati organikoa.
- b) Hiriko hondakin-uren araztegiatiko lohiak.
- c) Beste lehengai batzuk. Mota horretan hainbat kategoria sartzen dira:
 - I. Industrien hondakinak.
 - II. Abere-gorozkiak, etzalekuarekin edo gabe.
 - III. Laboreen hondarrak.
 - IV. Beste kategoria batzuk, labore energetikoak izan ezik.

A. 2. TIPOLOGIA (T2): Biogasa ustiatzeko instalazioak egitea:

Diruz lagundutako instalazioetan edo lehendik dauden instalazioetan (bat edo gehiago) ekoiztako biogasaren aprobetxamendurako instalazio mota hauek egin daitezke (azpi-tipologiak):

- a) T2.1 (1) Biogasarekin beroa zein hotza sortzeko instalazioa
- b) T2.2 (2)(3) Biogasarekin elektrizitatea sortzeko instalazioa.
- c) T2.3 (3) Eraginkortasun handiko kogenerazio-instalazioa biogasarekin.
- d) T2.4 (4) (5) Energia-erabilerarako biometanoraino arazteko instalazioa
 - a. erabilera garraioan.
 - b. sarerako injekzioa.
 - c. garraioa ez den beste erabilera termiko batzuk.
 - d. eraginkortasun handiko kogenerazio elektrikoaren erabilera.
 - e. transformazioa helburu energetikotzat duten beste produktu batzuetan.

(1) Biogasa zein biometanoa bakarrik erretzeko ekipoa izan behar dituzte. Fluido bero-eramailearentzako hodiak, sareak eta truke-instalazioak sartzeko aukera.

(2) Eraginkortasun handikoa ez den baterako sorkuntza barne hartzen du.

(3) Proiektu berean ekoizpen elektrikoaren (T2.2) eta bero-ekoizpenaren (T2.1) konbinazio gisa lortutakoa ez da eraginkortasun handiko kogeneraziotzat hartuko. Kogenerazioaren beroa ezin izango da T2.1 puntuan sartu.

Instalazioek nahitaez bete beharko dituzte maiatzaren 11ko 616/2007 Errege Dekretuan, kogenerazioa sustatzeari buruzkoan, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012ko urriaren 25eko 2012/27/EB Zuzentarauan, energia-eraginkortasunari buruzkoan, ezarritako efizientzia handiko baldintzak. Ondorio horietarako, lehen mailako energia portzentuala maiatzaren 11ko 616/2007 Errege Dekretuaren III. eranskineko c) idatz-zatiaren arabera kalkulatu da.

Eraginkortasun handiko kogeneraziorako, PES positiboa izan behar da 1 MW baino gutxiagoko potentzientzat, eta 10ekoa edo handiagoa 1 MW edo gehiagoko potentzientzat.

(4) Aurkezten den proiektuan sortutako biogas berritik abiatuta bakarrik izango da biometanoa ekoizteko aukera. Zabortegeitik datorren biometanoa sortzea kanpoan geratzen da. Biometanoa barne hartzen da garraioan erabiltzeko, sarera injektatzeko, garraioaz bestelako erabilera termikoetarako, eraginkortasun handiko kogenerazio elektrikoan erabiltzeko edo helburutzat energia duten beste produktu batzuetan eraldatzeko. Betebehar baten eremutik kanpoko garraio astuna baino ez da sartzen (Espainiaren kasuan, gaur egun JTO 2877/2008 Agindua).

(5) Deialdi honen ondorioetarako, biometanoa honako hau da: gas erregaia, batez ere metanoz osatua eta biogasa araztean lortua. Arazketa hori biogasean dagoen CO₂ bereiztean datza batez ere.

Digestio-prozesurako autokontsumo termikoan erabilitako beroa T2.1 tipologian edo PES kalkulatzeko bero erabilgarri gisa zenbatuko da.

A. 3. TIPOLOGIA (T3): Digeritua tratatzeko instalazioak egitea, ekonomia zirkularraren printzipioekin lerrokatuta (nekazaritza-aprobetxamendurako).

Digerituaren aprobetxamendurako, instalazioa konfiguratzeko hainbat aukera hautagarri osagarri daude, ekonomia zirkularraren printzipioekin lerrokatuta, hala nola:

- a) Egokitze fisikoa (solido-likido bereizketa, alderantzizko osmosia, beste batzuk)

- b) Mantenugaiak berreskuratzea.
- c) Likido frakzioaren tratamendua ongarri mineralak lortzeko.
- d) Frakzio solidoa konpostatze edo pelletizazio bidez tratatzea.
- e) Higienizazioa.
- f) Digeritu gordina biltegitratzea ongarri organiko gisa erabiltzeko.

Aurrez definitutako hiru tipologietatik abiatuta, eskabide bakarrean konbinazio hauetako bat sartu beharko da.

TIPOLOGIEN KONBINAZIO SUBENTZIONAGARRI POSIBLEAK	
KONBINAZIO MOTA	
C1: biogasa ekoiztea, biogas horren energia-aprobetxamendua eta digerituaren tratamendua	T1+T2+T3
C2: biogasa ekoiztea, biogas horren energia-aprobetxamendua	T1+T2
C3: Dagoen instalazio batean sortutako biogasaren energia-aprobetxamendua eta digerituaren tratamendua	T2+T3
C4: dagoen instalazio batean sortutako biogasaren aprobetxamendu energetikoa	T2
C5: biogasaren ekoizpena eta aprobetxamendu energetikoa, eraginkortasun handiko kogenerazio-instalazioetan	T1
C6: biogasaren ekoizpena eta aprobetxamendu energetikoa, eraginkortasun handiko kogenerazio-instalazioetan eta digerituaren tratamenduan	T1+T3

Gastuetarako aldi hautagarria

Eragin bultzatzailea.

Instalazioek erabat amaituta egon beharko dute **2025eko urriaren 31** baino lehen, eta erabat erabilgarri.

Laguntzen zenbatekoa eta mota

Itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak.

Bermeak aurkeztuz gero, alde zurretik kobratzea eskatzeko aukera.

2. pizgarri-programako jarduketetarako diruz lagundu daitekeen kostua kostu hautagarriaren berdina izango da, jarduera ekonomikorik ez duten onuradunak ez baitaude estatuko laguntzen araudiaren mende. Beraz, 2. pizgarri-programan, diruz lagun daitekeen gehieneko kostu unitarioa 1. pizgarri-programaren kostu hautagarri unitario maximoa izango da.

Eskaera bakoitzerako laguntzaren kalkulua instalazioaren unitateko kostu hautagarriaren ($U_{kl} = U_{kh}$) gainean zehaztuko da, betiere gehieneko kostu hautagarri unitarioa gainditzen ez bada.

Deialdietan parte hartzeko eta proiektua gauzatzeko bermeak

Proiektuaren deialdian parte hartzeko eta proiektua gauzatzeko bermeak oinarri arautzaileetako 24. artikuluan xedatutakoaren arabera ezartzen dira, eta Gordailuen Kutxa Orokorrean eratuko ditu

onuradunak, **“Kreditu-erakundeek edo elkarren bermerako sozietateek emandako abalen”** modalitatean, honela:

Bermatutako betebeharraren deskribapenean testu hau jasoko da: «Uztailaren 21eko TED/706/2022 Aginduaren 24. artikuluan ezarritako bermea, biogas-instalazioen proiektu berezietarako pizgarrien programen lehen deialdian parte hartzeko, Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan».

Bermearen zenbatekoa proiekturako eskatutako laguntza osoaren ehuneko hamarrekoa (%10ekoa) izango da (LZGUZTIRA SOL), A2 atalean definitutakoa. III. eranskineko XI. eranskina: onuradunak eskabidean jakinaraztea.

Bermearen indarraldia mugagabea izango da, Gordailuen Kutxa Orokorraren arauen arabera.

Laguntzaren ehunekoak

Diruz lagun daitezkeen proiektuak	Lehengaiak edo aplikazio energetikoa	2. Programa - Ehunekoa
a) Biogasa ekoizteko instalazioak egitea, baldin eta aprobetxamendu energetiko bat gertatzen bada edo biometanoa ekoizteko erabiltzen bada	Gaikako bilketatik datozen udal-eskumeneko hondakinen zati organikoa	70
	Beste	Aplikazio bakoitzerako b) letran adierazitako laguntza-intentsitateen neurketa haztatua, potentziaren arabera.
b) Instalazioak egitea, biogasetik abiatuta beroa/hotza sortzeko, energia elektrikoa sortzeko, eraginkortasun handiko kogeneraziorako edo biogas sortu berritik abiatuta, a) atala barne beraz, biometanoraino arazteko, garraioan erabiltzeko, sarera injektatzeko, garraioaz bestelako erabilera termikoetarako, eraginkortasun handiko kogenerazio elektrikoan erabiltzeko edo beste produktu batzuetan transformatzeko.	Beroa/hotza biogasarekin sortzeko instalazioa	80
	Elektrizitatea biogasarekin ekoizteko instalazioa	80
	Efizientzia handiko kogenerazio-instalazioa, biogasarekin	80
	Energia-erabilerarako biometanoraino arazteko instalazioa	80
c) Digeritua tratatzeko instalazioak egitea.	Gaikako bilketatik datozen udal-eskumeneko hondakinen zati organikoa	70
	Beste	Aplikazio bakoitzerako b) letran adierazitako laguntza-intentsitateen neurketa haztatua, potentziaren arabera.

Deialdiak beroa/hotza sortzea lehenesten du, biogasetik abiatuta. Oinarrien zirriborroei dagokienez, laguntzaren ehunekoa handitu egin da. Hori bat dator EBk prozesuko beroa sortzeko erregai fosiletatik deskonektatzeko emandako gomendioekin.

Diruz lagundu daitekeen kostua kostu hautagarriaren berdina izango da, instalazio baliokidearen kostua kenduta, 651/2014 (EB) Erregelamenduaren 41.6 b) artikulua aplikatuz. Ohiko instalazio baliokidearen kostua antzekoa den baina ingurumena gutxiago errespetatzen duen proiektu baten kostuari dagokio.

Hurrengo taulan, tipologia eta azpi-tipologia bakoitzerako unitateko erreferentziako instalazioaren kostuak (Uek), unitateko gehieneko kostu hautagarria (Ukhmax) eta unitateko diruz lagundu daitekeen gehieneko kostu (Uklmax) aurkezten dira, biogasaren potentziei (T1 eta T2.1), elektrizitate gordinari (T2.2 eta T2.3) edo biometanoari (T2.4) dagokienez, dagokionaren arabera:

INSTALAZIOAK	UNITATEKO GEHIENEN KOSTU HAUTAGARRIA (Ukhmax)	ERREFERENTZIAZKO INSTALAZIOAREN UNITATEKO KOSTUA (Ukf)	DIRUZ LAGUN DAITEKEEN UNITATEKO GEHIENEN KOSTUA (Uklmax)
T1 tipologiako instalazioak	880 €/kWt	0 €/kWt	MUT1 = 880 €/kWt
Beroa biogasarekin sortzeko T2 tipologiako instalazioak	50 €/kWt	45 €/kWt	MUC = 5€/kWt
Elektrizitatea biogasarekin ekoizteko eta kogeneraziorako t2 tipologiako instalazioak	950 €/kWe	346 €/kWe	MUE = 586 €/kWe
(Edozein erabilera energetikorako) biometanoraino arazteko T2 tipologiako instalazioak	500 €/kWt	50 €/kWt	MUB = 450€/kWt
T3 tipologiako instalazioak	LAT3 = T1 aukeragarriaren kostuaren % 50	0 €/kWt	LAT3 = T1 aukeragarriaren kostuaren % 50

Parte hartzeko baldintzak

- Elektrizitatea, beroa edo sareko injekzioa ekoizten duten instalazioek berotegi-efektuko gasen emisioak **gutxienez % 80** murriztea lortu beharko dute, eta garraioan erabiltzeko biometanoa ekoizten dutenen murrizketa **% 65 edo gehiagokoa** izango da. Elektrizitatearen/beroaren ekoizpena eta garraiorako biometanoa konbinatzen duten instalazioetarako, murrizketa kasu bakoitzerako adierazitakoa izan beharko da.
- Proiektuak tratamendu mekaniko biologikoko instalazioekin zerikusia duenean, justifikatu beharko da horrek ez dakarrela instalazioen hondakinak tratatzeko gaitasuna handitzea edo haien balio-bizitza luzatzea.
- 1 MW edo gehiagoko eta 50 MW baino gutxiagoko potentzia termikoko instalazioetatik datozen isurketek abenduaren 22ko 1042/2017 Errege Dekretuaren II. eranskineko II. zatiko I. koadroan edo III. eranskinean ezarritako **isurtzeko muga-balioak** bete beharko dituzte.
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko abenduaren 11ko 2018/2001 Zuzentarauaren, iturri berriztagarrietatik sortutako energiaren erabilera sustatzeari buruzkoaren, 29. artikulutik 31. artikulura bitartean ezarritako jasangarritasun-irizpideak beteko dira, bai eta dagozkion egintza eskuordetuak eta betearazpen-egintzak ere.
- Egindako instalazioek, hala dagokionean, dagozkien **erregelamenduetan** ezarritako baldintzak bete beharko dituzte (RITE, RGBT, RIAT, etab.).
- **Garraioan erabiltzeko biometanoa**, besteak beste, ibilgailu astunetan bakarrik erabiliko da; hau da, 3,5 tonatik gorako baimendutako gehieneko masa edo 9 pertsona baino gehiagorentzako edukiera duenean.
- Eraikinetarako **hotz-ekoizpenean**, Batzordearen 2022/759 (EB) Erregelamendu Eskuordetuan, 2021eko abenduaren 14koan, aplikatzekoak diren baldintzak bete beharko dira, hozteko erabilitako eta hozteko hiri-sistemarako erabilitako energia berriztagarrien kopurua kalkulatzeko metodologiari dagokionez.
- Kasu guztietan, dagokion **Ingurumen eraginaren azterlana** egingo da, proiektu horien garapenaren eraginak detektatu eta arinduko dituena.
- Deialdi honen bidez onartutako pizgarrien programari atxikitako instalazio guztiek diru-laguntzaren xede den instalazioak emandako **energia elektriko edo termiko erabilgarriaren monitorizazio-sistema bat** izan beharko dute. Honako hauek erakutsi beharko ditu:
 - o Gutxienez, egunean, hilean eta urtean zenbatetsitako energia-ekoizpen berriztagarria.

- Aurrekoaz gain, sistemak datu gehiago erakutsi ahal izango ditu, hala nola: saihestutako CO2 isuriak.
- Pantaila bat egon beharko da ikusteko moduko leku batean, datu horiek eguneratuta erakusteko.
- Informazio hori bera gailu mugikorraren bidez eskuratu ahal izango da.

Diruz lagun daitezkeen kontzeptuak

Honako hauek hartzen dira kostu hautagarritzat:

- a) Laguntzaren xede diren jarduketa-tipologiekin lotutako ekipo eta materialetan inbertitzea: digestio-sistema anaerobioa, gasometroak, gas berriztagarria arazteko sistemak, digestatuen tratamendua, erregai gisa biogasa erabiltzen duten ekipoak, elektrizitatea sortzeko eta kogeneratzeko ekipoak, biogasa sortzeko eta erabiltzeko proiektuekin lotutako beste ekipo batzuk, eta ekipo osagarriak.
- b) Deskargatzeko sistemak, siloak edo proiektuan erabili beharreko lehengaiak biltegitratzeko, prestatzeko edota tratatzeko beste sistema batzuk, baita horiek garraiatzeko eta elikatzekeo sistemak eta, hala badagokio, digestatuak tratatzeko sistemak ere.
- c) Beroa/hotza kontsumo-puntuetara banatzeko sistemak. Makina-gelak egokitzea, horretarako, inertzia-biltegiak, trukagailuak, ponpak, kolektoreak, tresneria, etab. gehituz.
- d) Gas berriztagarri konprimatuak konprimatzeko eta biltegitratzeko sistemak.
- e) Instalazioari lotutako kontrol-zentroarekiko kontrol, monitorizazio eta komunikazio sistemak, probak, abian jartzea eta funtzionamendu-saiakuntzak barne.
- f) Instalazioak garraiatzea eta muntatzea, abiaraztea, kalitate-kontrolak eta saiakuntzak egitea.
- g) Laguntzaren xede diren jarduketa-tipologiekin zerikusia duten obrak edota instalazioak gauzatzeko kostuak.
- h) Ekipamendu elektromekanikoak, hidraulikoak, kontrolekoak eta osagarriak, laguntzaren xede den jarduketari lotuta daudenean.
- i) Goi-tentsioko eta Behe-tentsioko sistema elektriko orokorra, transformadoreak, ebakuazio-linea eta garraio edo banaketa sare elektrikoarekin konektatzeko punturainoko sistema elektriko osagarriak barne, laguntzaren xede den jarduketa-tipologiaren arabera beharrezkoak direnean.
- j) Obra zibilak, laguntzaren xede diren jarduketekin eta proiektua behar bezala gauzatzeko beharrezkoak direnekin zerikusia badute.
- k) Kokalekuan dauden instalazioak eraisteko kostua.
- l) Laguntzaren xede diren jarduera-tipologiekin lotutako proiektuak edo memoria teknikoak idaztearen kostuak.
- m) Laguntzaren xede diren jarduketa-tipologiekin zerikusia duten zuzendaritza fakultatiboaren kostuak.
- n) Laguntzaren xede diren jarduketa-tipologiekin zerikusia duten obraren eta muntaketaren segurtasuna eta osasuna koordinatzea.
- o) Laguntza-eskaeraren kudeaketa kostuak, txostenak eta eskabiderako eskatzen den gainerako dokumentazioa idaztea barne.
- p) Jarduketak egin izanaren justifikazioaren kudeaketa-kostuak, txostenak idazteko kostuak eta laguntza horiek justifikatzeko eskatzen den gainerako dokumentazioa barne.
- q) Kontu-ikuskariak justifikazio-kontuari buruz egindako txostena.
- r) DNSH printzipioko betebeharrak betetzeari dagozkion kostuak.
- s) Beharrezkotzat behar bezala justifikatutako beste partida batzuk.
- t) Hautagarritzat joko dira T1 eta T2 tipologiaren edukiera handitzea (potentzia) eta T1 potentziaren handitzearekin lotutako T3rako ekoizpen-ahalmena.
- u) Hondakin-uren araztegiaren kasuan, digestio anaerobioko prozesutik (barne) aurrerako kostuak baino ezin izango dira aukeratu.
- v) Balio Erantsiaren gainerako Zerga (BEZ) edo, hala badagokio, Kanarietako Zeharkako Zerga Orokorra (IGIC), betiere horiek ezin badira berreskuratu edo konpentsatu, ez osorik, ez partzialki.

Aurreko paragrafoko o), p) eta q) idatz-zatietan adierazitako gastuak ordaintzeko pizgarrien programan onartutako gehieneko kostu hautagarri osoak **ezin izango du gainditu eskatutako laguntzaren zenbatekoaren % 7**, eta gehienez ere 10.000 euro espediente bakoitzeko.

Honako hauek ez dira diruz laguntzeko moduko gastutzat hartuko:

- Deialdi hau indarrean sartu aurreko gastuak.
- Proiektu teknikoaren ingurumen-inpaktuaren eta ikus-onesteko kostuen azterketak.
- Eskatzaileak proiektua garatzeko egiten dituen beste edozein sustapen-gastu.
- Zabor-tegiekin lotutako kostuak, baina horietan sortzen duten biogasaren aprobetxamendua kontuan har daiteke C3 eta C4 konbinazioetan.
- Sarera injektatzeko inbertsio-kostuak, biometanoa ondoren eraldatzeko kostuak eta banaketaren logistika-kostuak (hornigailuak, etab.).
- T1 eta T2ren potentziaren zatia eta T3ren zati proportzionala, betebeharraren esparruan garraio astunari buruzkoa.

Balorazio-irizpideak

Balorazio irizpideak	Puntuak
1. Irizpide ekonomikoa: eskatutako dirulaguntzaren zenbatekoa murriztea	35
2. Irizpide teknologikoa	35
2.1. Biogasa sortzeko instalazioa (T1)	16
2.2. Beroa biogasarekin sortzeko instalazioa (T2.1)	6
2.3. Elektrizitatea biogasarekin ekoizteko instalazioa (T2.2)	2
2.4. Efizientzia handiko kogenerazio-instalazioa, biogasarekin (T2.3)	4
2.5. Digerituaren tratamendua (T3)	2
2.6. Digerituaren balio erantsi handiko produktuak berreskuratzeko instalazioak	1
2.7. CO2 baliotzeko instalazioak	2
2.8. Elementu berritzaileak dituzten proiektuak	2
3. Kanpo-eragin positiboak	30
3.1. Gizartean eta generoan duen eragina	20
3.2. Energia komunitateak	5
3.3. Erakunde publikoak	2
3.4. Enpresa txikia	3
3.5. Enpresa ertaina	2
3.6. Proiektua autonomia edota toki-politikaren lehentasunetara egokitzeari buruz autonomia-erkidegoko edota tokiko gobernuek egindako txostenaren aurkezpena	5
GUZTIRA	100

Balorazio irizpidea	Gehieneko puntuazioa
1. Irizpide ekonomikoa: eskatutako dirulaguntzaren zenbatekoa murriztea (gehieneko puntuazioa)	35
P = Esleitutako puntuak (hiru hamartarrekin). Kmax = Eskatutako gehieneko murrizketa-koefizientea, hiru hamartarrekin, konbinazio-programaren instalazioetarako, onartutako eskabide guztien artean. Kmin = Onartutako eskabide guztien artean programa eta konbinazioa instalatzeko eskatutako gutxieneko murrizketa-koefizientea, hiru hamartarrekin. K = Eskatutako murriztapen-koefizientea, hiru hamartarrekin.	$P = \frac{35 \times (K_{max} - K)}{K_{max} - K_{min}}$ Esleitutako puntuak 0 eta 35 artekoak izango dira.

Onartutako eskabideak sailkatzeko eta hautatzeko gutxieneko puntuazioa 10 puntukoa da. Guztira 100 puntu emango dira.

Intereseko beste alderdi batzuk

Funtsen banaketa

KONBINAZIOA/ Potentzia P (MW)	2. PIZGARRI-PROGRAMARAKO FUNTSEN BANAKETA (MM€)					
	C1	C2	C3	C4	C5	C6
P<1	6,69	4,56	2,16	1,59	4,02	7,08
P≥1	21,54	14,61	7,05	5,7		

NGEU funtsak

7. osagaia 1PERTE ERHA 4. lerroa Biogasaren garapena (III. fasea Hedapena)

Ziurtagiri Berdeak eta Jatorri Bermeak

Ziurtagiri berdea: Laguntza-mekanismo baten esparruan merkaturatu daitekeen dokumentua, normalean obligazioa izan ohi dena, energia berriztagarri kopuru jakin bati dagokiona. Europako funtsetatik datorren laguntza bati lotuta dago.

Agindu honetako laguntzak EZ dira ziurtagiri berdeak jasotzearekin bateragarriak.

Jatorri-bermea: Bioerregaien, biolikidoen eta biomasa-erregaien berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko eta jasangarritasuna sustatzeko irizpideak arautzen dituen maiatzaren 17ko **376/2022 Errege Dekretuaren** eta gas berriztagarrien jatorri-bermeen sistemaren arabera, azken kontsumitzaileei energia kopuru jakin bat iturri berriztagarrietako gasetik lortu dela frogatzeko helburua du.

Agindu honetako laguntzak bateragarriak dira jatorri-bermeak jasotzearekin.